

VIETNAMGO GERRA

Urte zaharrek zerbakiak ipintzen jarraitu ohi dugu berrikoak idazten ohitu arte. Oraindik 1972 idatziz ari gara 1973en ordez. Horixe gertatu zait neri ere. Vietnamgo gerra ezarri dut Vietnamgo bakea jartzeko ordez.

Izan ere asko al da sua itzaltzea bakea izateko? Sekulan ez da garbi jakingo zenbat diren ilak. Baina bi milioitatik gora dira gerrateko garbitutakoak. Eta zauritutakoak? Betirako elbarritutakoak? Alargunak? Umezurtzak? Etxerik gabeak? Ezin konta ahalak.

Eta gosea? Gorrotoa? Mixeria? Ez da munduan ondamendi hori guztia neurituko duen gizonik ez neuririk.

Su aundia itzali da, baina noiznahi piztu ditezkeen txinpartak daude autspan eta zakarpean nonnahi. Mintza al gintzekie, beraz, Vietnamgo bakeaz?

Aragi bitan dauden zauriak sendatzea eskatzen du bakeak lehenik. Emeretzi urte bete dira Ginebratik Parisko bake-itunera. Zenbat igaroko ote dira egiazko bakea iritzi bitartean?

Egiazko bakeak egia eskatzen du. Vietnamgo gerrari buruz gezurrik ez esatea. Nork berak egindako okerrak besteren bizkar ez botatzea. Erri osoa gerraz aspertu eta okitu denean iritzi dira bake-ituna izenpetzeko asomata. Legez amaizu dira bonbardeoak, baina bonba otesek jarraitu egiten dute. Bakoitzak sailik aundian jabetu nahi du eta jendea iltzen eta bazterrak txikitzen jarraitzen du.

Ehun milatik berrehun milaraino dira bahituak eta giltzaperatuak; hoitaitik asko zigorpean eta akiturik. Hoiek askatzeko jo nahi da auteskundeetara. Hoiek ez dute beren iritzia emateko eskubiderik izango. Eta egiazko bakea, hoiek denak, askatzea eskatzen du.

Erlitjo mota askotako jendea dago Vietnamen. Beharrezkoa da, beren artean bakean bizi ditzeten, araudi bat onartzea. Bestela galdurik dira beren arteko borroketan.

Ego-Vietnam, nekazari erri da, batipat. Berritua izan da nekazalgora Ipar Vietnamen. Beste horrenbeste eskatzen du Ego aldekoak ere egiazko bakea egin nahi bada. Bakeak txikitutako guztia jasotzea eskatzen du.

Egiazko bakeak Ipar-Vietnam eta Ego-Vietnam elkartzea eta aberri bat egitea eskatzen du. Abertzaletasunean dukete pakearen eta batasunaren lokarria. Ez dezagun ahantz Ipar-Amerikari utzarturik dagoen Ego-Vietnamgo Gobernuaz asperturik daudela Ego-Vietnamdarrak.

Hori guztia betetzen ez den bitartean ez dezakegu jo bake ekilarik. Gerra txar, luze eta aspergarri bat amaitzeko ematen duen atsedean laburra besterik ez dezakegu ar.

Urte luzetan irau du gerra honek. II berria dugun Johnson izan da gerra honen euskarririk gogorrena. Ipar Amerikan egin zituen beste gauza on asko Vietnamgo jokabidez zikindurik geratu zaizkio. Alferrikako gerra luze, neketsu, garesti eta gaigarrian murgilara eta zatiarazi zuten Ipar Amerikako erria.

Bake-itunaren berri jakin gabe il da Johnson. Bakea lortu duen aingerua bezala bizi nahiko du Nixonek. Bake-itun hortan garbitu nahiko ditu zikindurik daukan eskuak. Bake-egile bezala joko du bere burua eta jasoko ematen bazaio "Pakearen Nobel Saria".

Baina ez anka eta ez buru asi, irau eta luzatu zen gerra bildurgarri horrek zikindurik geratuko da betirako lausorik gabeko begiz epaitzen duen gurtzientzat. Eta bake-itunak bake-itun, lurjota eta zatiturik iraungo du urtetan Vietnamek. Luzearen luzez barter guztiak nazkatu ditutenean amaizu da gerra itsusi hau. Gerrari ere, Johnsoni bezala, eriotza etorri zaio. Ez du bakerik egin.

Postu gaitzezen, ordea, bakearen asiera dela sinetsiz.

AZURMENDI RIKARDOZ MINTZO

Urteetan barrera arrenkuratu izen garbi euskaltzaleok: «euskaraz ez dugu ezer irakurgaririk curkitzen». Gaur, ordea, hori ez da Letere egia. «Mitologo» belaskez gain badugu besterik eta gotorragiak: Garate, Antsola, Mitxelena, esate baterako. Eta badugu batez ere euskal ideien mugimenduaren aztertzailere zorrotz bat: Joxe Azurmendi. Nork segitzen du, ordea, mezezi lukean bezala? Nork ikasten eta kontutan hartzen haren lan sakon eta gotorra? Hiraka errolek, batetik, ez dute Azurmendirik nahi; eta honen izkribuek urte eman baino askoz lehenago ere nahi lukete ahartzuta eta zokoratuta gelditzea. Sasi-jakintseak eta arloetok, bestetik, errazago dute arandegi-etan eta afalondotan hitz-jario gisa txapeldun gelditu, gure herriak

benetan jasaten eta kezkatzen dituen arazoak aztertzea baino.

«Herriaren lekuko» liburuan (Jakitzi Soria, G) Rikardo Arregi zenari buruz Azurmendik egin duen ikertzean argitsua, horretara, behar baino gutxiagotan aipatu da gure artean.

Rikardo Arregi, halere, Azurmendik xuxen dionez, «euskal gazeriaren sinbolo eta esponente» denez gero, oso irakurgarria litzake gure zegamar langileak prestatu duen lana; ezereñ Rikardoren bilakabidea, gaurko gize askoren bilakabidea baita.

Azurmendik ikusten duenez, Rikardoren marritala hauxe izan da: sorkuraz euskaltzale eta dogmakeriaren etsai izan, eta geroago Marx ezagutu. Hots, Rikardoren beraren hitzez esateko «nere bizitako une bortizientekoak, pozez eta bilduraz betetakoak, Marx eta marxistak irakurtzean» senditu zituen. Eta zalantzarik gabe gauza bere esango luke gaurko gazte askok, nik usate. Bi joera bortitz horien arteko tirabiren isplu edo errainu izan da Arregiren ekarria.

Azurmendik dionez Marx-en ezaguer horrek «on egin dio Rikardoren eboluzioari», baita —beti Azurmendik mintzo— «Euskal Herri osoarenari»; eta zenbaiten inxplekeriak eta gehienon monolitismoa ikusita, ez nuke nik neuk ere eztezik esango. Batez ere Marx gaurko gizaritekeraren filosoforik ezagunena denez gerotzik.

Marx-i aldeaz aurretik eta entzun ere gabe uko egitea, denbora galteza da; Einstein, Freud edo Saussure-ri osotara uko egitea denbora galteza den bezalatsu. Marx-en ekarriaren parte bat zientzi-ekarria dela, eta zientzi-ekarri denez izpirituaz nagusituz joango dela, gauza ageriaz zait. Freud-en kontra, gonbarazio baterako, debekuz eta eskomikuz egindako hesiak eraikitzea alferrik izan den eta izango den bezala.

Marx-en ezaguera, kultura-arazo bihurtu da 1973an; eta zenbait puntutan danok gara gaur marxista. Kulturadun jendeak, Unibertsidadeak, soziologilariak, gogoan dute maiz Marx; ezjakinek berriz ez, ez baitute ezagutzen.

Alderdi honetatik, beraz, egia du Azurmendik; eta egia den bildur ez den edonork txalotzen du marxismoaren hedaketa hori. Nik neuk ere bai, dudarik gabe.

Baina Marxengan bada eskatologia nabarmen bat, Hegel-egandik edo ez dakit norengandik hartua; eta eskatologia eta mesiakeria horiek, azken urteotako kondairan mila aldiz mito eta ipuin gisa nabarmen geldituta, garaia da egia eta gezurra Marxengan berezteko. Berezketa hau ere kultura-kontu bat da 1973an.

Ezin daiteke esan, egia ez delako, mesiakeriaren parte hori marxismoan bigarren mailakoa denik, eta abar. Ez dakigu zein mailakoa den; baina nabarmena da. Izan dezagun egia garbi ikusteko eta esateko kurala. Marxismoa erresuma eta partidu askotan eman dituen makurkeriak, Marxek berak kutsatuak dira, eta ez gerozko «ex-crossance», «erreibilisismo», edo abar. Orain dela ehun eta gehiago urte sumatu eta iragarri zituen Bakunek. Eta Bertrand Russellk, Isalaz iragarri bezain iragarri, harri garrarri salatu zituen denak 1920-an idatzi zuten liburua mizergarrian, oraindik ere Stalinen irensea bera inork ezagutzen ez zuten mementoan. (Berriz ere gomendatuko nieke sozialista eta egia den egarri diren guztiei «Théorie et Pratique du Bolchevisme» liburua irakurtzea, «Mercure de France» argitaratua).

Hil baino lehentxeago arte beldur (nik azkeneko aldiz hitzegun nuen Rikardo, pentsakera-jarrera bilakenean aurkitu nuen hil baino bi-

labetetsu lehenago) ez zuen hau guztia harek ikusi, gaur beste batzuek ikusten ez duten bezala. Tradizino katoliko gotorra duen herri bateko seme garenaz gero, San Tomas bezalaxe hartu dugu Marx; San Tomas-en teoriak bezala orain Marx-enak daude aipatzen eskutatzen eta sermoi gisa azalduak. Eta gure herria, aspaldianik liburu sakratuen egia borrolik osorik iresten ohiitua, liburu sakratuen sistematik at irten. Pentsakera-egitura osozaleak Rikardoren berandun arte irau zuela (honetan Azurmendigandik urrunten zaiz) gauza nabarmena iruditzen zait; nahiz apetzumeek, bidezko denez, beren deformazio berbera dutenengan defamazioz ere sumatu. Marx ezagutu behar da; baina Sartre, Russell, Sri Aurobindo eta Lacan ere bai.

Hitz batez, gu klerikalismoan bizi izan gara luza, eta ez gara horretatik atara. Ez pertsonen dagokienez, ez pentsakera-moldeei dagokienez. Barne-egituraz Euskal Herriko parrokiako ardi-talde ona eta sinestorako baizit ez gara. Parroki katoliko handi bat, eta espainola. Ez luteratarra, alegia. Liburu sakratuak *libroki* hartzen ohiuta.

Badakit. Ez dute hau entzun ere nahi batzuek. Langleria bat sortu da gurean; eta honek ez bestek ekarri omen digu gainerakoa. Ene erantzuna hau da: bai eta ez. Bai, kapitalismoaren ondorioak jasaten ditugun aldetik; ez, berriz, Elizaren krisia jasaten dugun aldetik. Zer utzi digu bada? Mendeetan zehar katolilotasunak utzitako atzarnak eta sustraiki sotana-kontu huts bat direla? Tira, tira!

Elizak markatu du Euskal Herria ezin sinetsizko moduan, Irlanda edo Austria edo bezala. Budismoak Tibet markatu duen bezala.

Eta azpalenak, Rikardoren kasoan eta beste antzietan, hortxe ere bilatu behar dira.

Eta hemen aipatuko ez ditudan beste alde batzutatik ere bai, ze debrul!

LARRESORO

Egun Egunekoa

PENTSAKETAN

Ikastolari nolabait laguntzeko, Bizkalko herri batetan eratu zen partidu bat: Bilbao Athletic Real Sociedad-en kontra, leheneko jokalariek («viejas glorias» delakoak) hil alderditzen. Baimena, ordea, ukatu egin dute agintariek, zergatik esaten ez dutela.

Isiltze hori dela medio, pentsaketan ibili naiz.

Ikastolarena badadi errua, oker dabilta supermarxistak ikastolaz mintzo direnean.

Eta jokalariena badadi, nork pentsa lezake berrogei urtetan fitxatuko zirela?

Daniel Ibargotti

IZADIA GORDE

Gizonaren egitekoa eta erantzunkizuna

Hogeigarren mendearen gertatzen ari dira aldaketari haundienak eta teknika eta zientzia aldetik aurrerapenik azkarrenak. Gizonaren biziera bera ere aldatzen ari da eta ez da nolabanahiko gizaritako egituretan daukan ezin moldatua. Lehengo molde askok ez du balio gaurko gizonarentzat. Gizonak ezin du bere gustoko habiarik eta oherik egin gizartean.

Baina egia ez da hori gogorrena. Lurraren jirabiran dagoen egurats bizia ari da hiltzen. Gizonak behar dituen mea, landare, zomorro pizti, egazti, abere, haize, ur eta abar ari dira urritzen eta txarritzen. Gauza guztien arteko oreka kolokatu du gizonak eta desegituko bidean jarri izadia.

Luzaro baino lehen gizonaren arnasa, gizonaren bizia dago arri-

kuan beste jokabideren bat hartzen ez badugu behintzat.

Heriotzera goaz abiada bizian batez ere hemeretzigarren mendetik hasirik. Gero eta astakeria haundiaok egiten ari gara.

Mendi osoak soiltzen ari gara baso eta oihanak orpotik botaz. Galdutitu ditugu itsasertzeko arrinak ia erabat: ugaltzen uzten ez diegula, itsasoa zikin guztien sasteji bihurtu dugulako, hibaleatuko urak hil ditugulako... pozoiitua dago guk birketan hartu behar dugun haizea ere.

Jabetu da hontaz UNESCO elkartea eta ekin dio lanari. Hasi da erabakialk hartzen, egitarauak taxuzten, hiltzailak ematen... Baina orain guri dagokigula hortaz ohar-tza: langileak, nekazariak, nagusiak, agintariak... denok.

Ez dezakegu izadiak jolasik egin.

Geure bizia jokatzen ari gara. Lur-gainean bizi-ezina sortu dizeaitegu ondorengoei.

Izadia desegitea ez, osatzea baizik da gizonen egitekoa. Gizonaren zerbitzuan jarri, baina desegin gabe. Beharrezkoak ditu izadiak urak garbi, zuhaitzak ugari, bizidunak ondoan gizonak irensei behar duen haizea osasungarri gerta dakion.

Eguratsik garbitzen ez duten pifuz josi ditugu mendiak. Pozolez bete hibaiek. Herri barruko zuhaitz guztiak bota etxe piloa jasotzeko. Ke lurrunez estali lurgaina.

Ez da txikia gizonari sortu zaion buruhaustea. Denon erantzunkizuna da. Denon esku dago. Denon egitekoa da. Izadia zaindu, izadia gorde, izadia osatu, izadia globerritu.

IRASTORTZA



Zuzenadaria: MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA: •
Barruan 300 pezeta
Korreo batasunetako errietan 350 pezeta
Atzerietako beste errietan 370 pezeta
Aldez Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irakola: «Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUIÑEA
D. L.: NA. 80-1963

ZERUKO ARGIA
EUSKAL ALDIZKARIRIK TRINKOENA.
AUKERAN, MERKEENA.
EGIN ZAZU ARPIDE BERRI BAT.